

Gida:

Haur eta Lehen Hezkuntzako lanpostuen egonkortasuna

+

2021-2022 Ikasturte Hasierako Esleipenak (Ordezko gaiak, kidego guztietan)



Haur eta Lehen Hezkuntzako lanpostuen egonkortasuna

1. Nortzuk izango dute egonkortzeko eskubidea?

- 2020-2021 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako esleipen arruntean (abuztuan) edo ezohikoan (irailean) lanpostu hutsak (bakanteak) eskuratu zutenek.
- 2020ko urriaren 1a baino lehen lanpostu huts batean izendapena dutenek (330 egun baino gehiagoko lan kontratua). Adibidez, erretiro bat.

2. Nola jakin zure lanpostuak egonkortzeko eskubidea ematen ote dizun?

Uztailaren 5ean argitaratu den zerrendan begiratu behar da. Bertan, egonkortasunerako eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu zen.

2.1. Uztailaren 5ean argitaratutako zerrendarekin ados ez bazaude:

- Erreklamazioa epea: uztailaren 5eko 9:00etatik uztailaren 6ko 14:00ak arte.
- Uztailaren 5ean argitaratutako zerrendetan akats asko zeuden. Hezkuntza Sailak uztailaren 6ean akatsen zuzenketak jasotzen dituen ZERRENDA BERRIA ARGITARATU ZUEN.
- Erreklamazio epea LUZATU ZUTEN: uztailaren 7ko 14:00ak arte.

Aurkeztu diren erreklamazioak aztertu ondoren, uztailaren 12an argitaratuko den zerrendan begiratu behar da. Bertan, egonkortasunerako eskubidea duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

3. Nola jakin automatikoki egonkortu zaituztela?

Uztailaren 13an argitaratuko den zerrendan begiratu behar da. Uztailaren 12ko zerrendan zure lanpostuak egonkortze automatikorako eskubidea ematen zizula agertu arren, zure lanpostua funtzionario batek hartu izanaren ondorioz edo beste arrazoi bat tarteko, **BALITEKE UZTAILAREN 13ko ZERRENDAN EZ AGERTZEA**. Borondatez, prozesu orokorrean parte hartu ahal izango duzu, horrela adieraziz gero.

3.1. Uztailaren 13an argitaratuko den zerrendarekin ados ez bazaude:

Erreklamazio epea: uztailaren 13ko 14:00etatik uztailaren 14ko 10:00ak arte.

3.2. Uztailaren 13an argitaratuko den zerrendan agertzen ez bazara?

Automatikoki egonkortzeko eskubidea galdu duzu. Nahi izanez gero, prozesu orokorrean parte hartu ahal izango duzu eta uztailaren 15ean ikastetxe berean libre geratu diren lanpostuetara lehiatu, horrela adieraziz gero.


4. Nola jakin borondatezko egonkortze prozesuan parte hartu behar ote duzun?

Uztailaren 12ko zerrendan zure lanpostuak borondatez egonkortzeko eskubidea ematen zizula agertu bazen, ezaugarri berdineko lanpostu horretara uztailaren 15ean lehiatu ahal izango zara, horrela adieraziz gero. Egonkortasunari uko egitea erabakiz gero, ohiko/ezohiko (abuztuko/iraileko) esleipenetan parte hartu behar duzu.

5. Nola jakin prozesu orokorrean parte hartu behar ote duzun?

Egonkortze automatikoan lanposturik eskuratu ez dutenek zein borondatezko egonkortze prozesuan ezaugarri bereko lanposturik eskuratu ez dutenek parte hartu dezakete. Ikastetxe berean libre geratu diren lanpostuetara lehiatu ahal izango dira uztailaren 15ean, horrela adieraziz gero.

Haur eta Lehen Hezkuntza. Egonkortasun diagrama



2021-22 Ikasturte Hasierako Esleipenak (Ordezko gaiak, kidego guztietan)

1. Lurralde historikoa eta jardunaldia aldatzeko aukera?

Ordezko gaien abuztuko eta iraileko esleipenetan (soilik 2 fase horietarako) Lurralde Historiko eta lanaldi-mota aldatzeko epea, uztailaren 5etik uztailaren 7ra izango da.

2. Derrigorrez parte hartzeko puntuazio mugarik egongo da?

Ez.

3. Parte hartzea borondatezkoa da?

Bai.

4. Aurten esleipen prozesurako aplikazioa berria izango da?

Bai. Aplikazio informatiko berriaren bideo tutoriala [Hezkuntza Sailaren webgunean](#) argitaratu dute.

5. Nola funtzionatzen du aplikazio berriak?

Aurtengo aplikazio informatikoak lanpostuak bi multzotan sailkatzen ditu:

- **Derrigorrezko multzokatzera:** aplikazioak hautagai bakoitzari eskatu ditzakeen lanpostu guztien zerrenda sortuko dio (ezaugarri bereziko lanpostuak gorritz adieraziko ditu).
- **Borondatezko multzokatzera:** lehiarako lanpostuen zerrenda egin behar da. Hau da, hautagai bakoitzari dagokio lehiatu nahi dituen lanpostuen zerrenda egitea eta horien hurrenkera adieraztea. Hori gauzatzeko lanpostuak derrigorrezko multzokatzetik borondatezko multzokatzera pasa behar dira.

6. Zein da borondatezko multzoko lanpostuak esleitzeko irizpidea?

Borondatezko eskabideen esleipena egiteko ordezko gaien zerrendako goragoko maila hartuko da kontuan. Hau da, ordezko gaien zerrendan puntu gehien duenak lehentasuna izango du.

7. Inork aukeratu ez duen lanpostua nori esleituko zaio?

Ordezko gaien zerrendan puntu gutxien dituenari esleituko zaio, hau da, Ordezko gaiak duen funtzionamendu berdina izango du.

8. Zerk eragin du ordezko gaien esleipentako irizpideak aldatzea?

Orain arte indarrean zegoen 2011ko uztailaren 15eko agindua bertan behera geratzen da, [2020ko ekainaren 1eko agindua](#) indarrean dagoelako. Agindu horrek abuztuko eta iraileko esleipenen aplikazioan eta plazarik esleitzeko irizpideetan eragina du.

STEILASek ohiko galderari erantzuna eman eta oinarrizko kontzeptuak agitzeko gida hau zuen eskura jartzen du.